


SASKIBALOIA

PILOTA

LABURREAN



Patt Ewing.

Portlandek eten du Cavaliers taldearen bolada ona NBA

NEW YORK

Cleveland Cavaliersek hamabi partidu jarraian irabazita jaso zuen Portland Trail Blazersen bisita, baina Clyde Drexler hegalararen joko bikainak bolada ona eten zion, eta Portlandek 121-114 irabazi zuen Richfieldeko norgehiagoka.

Clyde Drexlerrek 34 puntu lortzeaz gain, baloi garrantzitsua lapurtu zuen partidu amaieran, markagailua 115-114 zegoela. Garaipen honekin, Portlandekoak bigarren postuan jarraitzen dute Pacific Divisioneko sailkapenean.

Houstonen, Carl Herrera venezolarrak orain arteko partidu onena jokatu zuen Rockets taldearekin, eta hegalararen 14 puntuak garrantzitsuak izan ziren Denver Nuggetsren kontra 111-94 irabazteko.

Azken ihardunaldiko partidu interesgarriena San Antonio Spurs eta Golden State Warriors taldeek jokatu zuten. Etxekoak faboritoak izan arren garaipena lortzeko, David Robinson eta konpainiak porrot egin zuten, puntu bakarratik izan arren (123-124).

Aurrekoa bezain berdindua izan zen Seattle Supersonics eta Charlotte Hornets taldeen arteko norgehiagoka, eta hemen ere puntu bakarrek alde lortu zuten Hornets bisitariak (116-117).

New York Knicks taldeak aldiz, Patt Ewing pibotaren jokoan oinarrituz, garaipen garrantzitsua lortu zuen Orlando Magic taldeari eginiko bisitan (111-115). Nets taldeak ere, gutxiago izan nahi ez eta 97-88 irabazi zuen Dallas Mavericksen kontrako partidua.

Michael Jordan buru zutela, Chicago Bulls taldeak ez bairik gabeko garaipena lortu zuen Philadelphia Sixersren kontra (103-80). Charles Barkley eta Jordanen arteko lehiaren Bulls taldeko izarra nagusitu zen.

Emaitzak: New York Nets 97-88 Dallas Mavericks; Washington Bullets 127-118 Indiana Pacers; Orlando Magic 111-115 New York Knicks; Atlanta Hawks 93-88 Milwaukee Bucks; Cleveland Cavs 114-121 Portland Trail Blazers; Chicago Bulls 103-80 Philadelphia Sixers; Houston Rockets 111-94 Denver Nuggets; San Antonio Spurs 123-124 Golden State Warriors; Utah Jazz 116-110 Minnesota Timberwolves; Seattle Sonics 116-117 Charlotte Hornets.

Manomanistan epea itxita, orain txapelketa modua izango da koska

10 pilotarik bi eskilara osatzeko aukera emango luke, ohizkoa behar

Eskuz Banakako Txapelketarako izenemateko epea atzo amaitu zen, eta dagoeneko guztia prest izango dute enpresariak txapelketa sistema eta pilotari bakoitzari dagokion maila erabakitzeko. Haien zain egon gabe proposamena egin duenik ere izan da, ohizko eskilara bakarren ordez bi eskilarako sistema aukeran hobe dela arrazoituz.

X.M. / DONOSTIA

Ladis Galarza, Julian Retegi, Inaxio Errandonea, Joxean Tolosa, Fernando Arretxe, Soroa III, Patxi Eugi, Jokin Errasti, Mikel Unanue eta Joxemari Zezeaga. Horixe izan daiteke manomanista nagusia jokatuko duen hamarkotea. Atzo amaitu zen izen emateko epea, eta Miguel Soroa zalantza nagusia zen erredakzioa itxi genuenean. Aurrelariak animo handirik ere ez duela dioten esamesak ere zabaldu dira, baina ezin izan genuen berarekin mintzatu. Joxean Tolosa ere azken ordura arte zalantza izan da, baina haren etxean baieztatu digutenez, izena ematekoa zen.

Manomanista nagusia hamar pilotarik jokatuko balute, orain arteko txapelketa sistema erabili daiteke, txapelkunarengandik hasi eta behe-ragoko maila bakoitzean pilotari bana jarritz. Aukerakoa da ordea Retegi II eta Galarza III zerrendaburu di-



Galarzak Retegiri irabazitako txapela defendatuko du.

rela, gainerantzeko zortzi pilotariak launa mailako bi eskilaratan banatzea, atzo Jon Truebak El Diario Vascon proposatu zuen moduan.

Eskilara bakoitzeko irabazleak eta bi zerrendaburuak ligaska jokatuko balute, lauk lauena kontra, ikuskizuna ziurtatuta egongo litzateke. Azkenean aukerakoa litzateke ligaskako bi lehenek partidu bakarren ala gehiagotan jokatzea txapela. Erabakia enpresariak hartu behar dute.

Baina azken urteetan kritika ugariak jaso izan ditu eskilara bakarrek sistemak; partidu bat txarra nahikoa bait da inolako aukerarik gabe gertatzeko. Ladis Galarza izan da txapelketa sistemarekin kritikoa agertu izan dena; aurten ere azken urteetako mantenduz gero, partidu bakarra jokatu beharko luke Baribarboak, txapelduna izaki. Esan bezala ordea, ikusteke dago enpresariak zer erabakiko duten.

Pilota hautaketa egingo da gaur Logroño eta Eibarko frontoietan

X.M. / DONOSTIA

Eskuz Binakako Txapelketan, finalerdietarako sailkapena erabakiko duten bi partiduak igandean jokatuko dira Adarragan eta Astelenan, eta gaur egingo da material hautaketa bi frontoietan. Logroñon Bergara II - Arretxe eta Unanue - Zezeaga bikoteak bilduko dira, gaur goizeko 11etan. Xalbador Bergarak oraindik mina du, azken partiduaren atarian jasadako istripuaren ondorioz, baina Adarragan jokatu egin nahi du. Ezinean izango balitz, Bengoetxea IV izango litzateke berriz ere haren ordezkoa.

Bergara eta Arretxek irabazi beharreko partidua dute, hainbat aldiz esan dugun moduan; Unanue eta Zezeagak aldiz 6 tantu nahikoa dituzte finalerdietara sailkatzeko. Baina gipuzkoarrek azken partidua irabazi nahi izango dute, B multzoko aurreneko postua eskuratu eta finalerdietan Retegi eta Maiz uxatzeko. Adarragako partiduan Salaberria eta Galarzak ere sailkapena izango dute jokoan. Iazko txapeldunordeei gipuzkoarrek irabaztea komeni zaie...

baina ikusi egin beharko. Orain arte bezelatsuko materiala izanez gero, atzekaldean lehia izugarria dago iragarrita Arretxe eta Zezeaga bikainen artean.

Eibarren arratsaldeko 5etan dute zita Alustiza - Tolosa eta Eugi - Errandonea bikoteek. Retegi eta Maiz dagoeneko lider zurrak izaki. Astelenako partidua irabazten duenak A multzoko bigarren postua eta finalerdietarako txartela eskuratu dute. Eugi eta Errandoneak erakustaldi ederra eman zuten Labriten. Retegi eta Maizi irabaztean. Inaxio Errandoneak izugarriko partidua egin zuen, baina Berako atzelaria ez da fido igandean kontrario izango duten bikotearekin. «Guretzat etsai txarragoak dira —esana du Errandoneak—, Tolosak ondo atzeratzen bait du pilota». Abenduaren 7an bi bikote hauek Labriten jokatu zuten partidua oso atzera geratu da honez gero, baina hango emaitza (22-3) erraz ahaztu ezin daitekeen horietakoa da. Ikusteke dago nafarrek gorantzako bideari segiko diotenentz. Konfidantzarik behintzat ez zaie faltako, azken garaipenaren ondotik.

Karteldegia

Gaurko partiduak

GALARRETA. 16.00. Larrañaga - P. Lekunberri / Kalonge - Zestau II. Arregi - Mujika / Matxin - Aizpuru. Noain - Mujika II / M. Lekunberri - Eizagirre. Olo - Iturralde / Ezkurra - Astrain.

EUSKAL. 16.00. Odriozola - Imaz / Egialde - Urretabizkaia II. Intxaurburu - Agerre / Elizalde II - Zubeldia. Guenbe - Etxeberria / Aseginolaza II - Barrenetxea. Urrutia - Aramburu II / Urkia - Ulzurrun.

Biharko partiduak

GERNIKA. 21.45. Falcon - Okamika / Llona - Markos. Txikito Bolibar - Castro / Beaskoetxea II - Arkarazo. Azkarate / Elola.

Larunbateko partiduak

BERGARA. 16.30. Zabala - Andueza VI / Etxaniz - Salbidea. Arteaga - Maiz II / Salaberria - Aldazabal II. Gabilondo - Alberdi III / Loiarde - Garaita.

VATANEN-MORALES garaile atzoko etapa gogorrean

Vatanen finlandiarra kotxeetan eta Morales frantziarra motoetan irabazi zuten atzo Parise Capetown Rallyko azken aurreko etapa. Kotxeen sailkapenean lehen postuan jarraitzen duen Mitsubishi taldeko Auriol zazpigarren postuan sailkatu zen atzoko etapan. Inolako zalantzarik gabe frantziarra txapeldun izango da gaur Capetownen amaituko den rally honetan. Motoetan Stephane Peterhansel frantziarra izango da garailea ●

ASTON VILAK Tottenham taldea kanporatu du Kopan

Aston Vilak Tottenham kanporatu du Ingalaterrako Kopan White Har Laneko azken partiduan 1-0ko emaitzaz galdu ostean. Aston Vilan Kevin Richardson eta Dalian Atkinson Realeko jokalaririk ohiek jokatzen dute, eta Tottenhamen aurkako kanporaketa izan da talde honen aurtengo denboraldian egin duen gauzarik onena. Fitxaketa ugari egin arren Atkinsonen taldeak ez du denboraldi hasiera oso ona burutu, baina Kopako garaipen honen bide onetik doazela erakusten du ●

PIQUETEK ez du Munduko Txapelketa aurten utziko

Nelson Piquet brasildarrak ezeztatu egin du F1 txapelketa utzteko asmoa duenik. Atzo iragarritako albistearen arabera Benetton taldeko pilotu ohiak erretiratzeko asmoa duela agertu zion Brasileko telebista bati, baina gero ezeztatu egin du. «Nere hitzak gaizki interpretatu dira» esan zuen atzo brasildarrak. Badirudi Piquet Ligier taldearen eskaintza espero duela ●

KAPPES-DE WILDE bikotea nagusi Bremen

Andreas Kappes eta Etienne de Wilde irabazi dute Bremeneko Sei Egunean. Belgiarrek eta alemaniarrek osaturiko bikoteak 479 puntu behar izan dituzte bigarren urtez Bremeneko garaipena eskuratzeko. Bigarren eta hirugarren postuetan Holenweger-Freuler eta Clark-Doyle bikoteak sailkatu dira ●